



idazlea zeu zara, irakurtzen duzulaka

Lehen Hezkuntzako hurrei zuzendutako ipuin kontaketa dramatizatua.

**Joseba Sarrionandiaren izen bereko ipuin liburuan oinarrituta
Artedrama eta Dejabu Panpin Laborategia konpaniek prestatuta emateko.**



*idazlea zeu zara,
irakurtzen duzulako*



EGITASMOA

HIK HASI pedagogia elkartearen ekimenez 2010an argitaratu zen Joseba Sarrionandiaren “Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako” ipuin liburua. Implikazioz beteriko ipuin laburrez osatuta dago liburua, pentsamendu autonomoa, dibergentea eta kritikoa ahalbidetzen duten proposamen literarioz betetako narrazioak guztiak. Denak ere interes pedagogiko handikoak.

IKUSKIZUNAREN HELBURUA

Ipuin kontaketa baten bidez, ipuinen lanketa sakonagoa egitea da xede nagusia. Bertan lantzen diren gaiak –“Elkarrekin bizitzen ikasi”, “Komunikatzen ikasi”, “Pentsatzen ikasi” eta batez ere “Norbera izaten ikasi”- hurrekin antzerkiaren bidez modu zuzenagoan hausnartzeko aukera ematea. Guzti hau, ikastetxeetara antzerkia, ipuingintza eta irakur-zaletasuna lantzeak berez izan lezakeen berezko interesarekin batera.



*idazlea zeu zara,
irakurtzen duzulako*



IDAZLEA

Joseba Sarrionandia idazle oparo eta sakonenenetakoa dugu. Poesia eta nobelagintza landu ditu baina batez ere ipuingintzan da aitzindari eta maisu. Haurrentzat eta hurrekin partekatzeko ipuinak idatzi ditu liburu honetan. Balio poetiko handiko narrazio horien bidez, aurkezten diren egoerak interpretatzera eta, berreraikitza bultzatzen gaitu idazleak. Goatzera eta irudimenaren munduan bidaiatzera poesiaz jantzitako bere prosaren bidez. Umorea bidelagun, errealitatea eta absurdoaren arteko mugak lauso, ipuin bakoitzean harrিতa uzten gaitu: pentsaraztera bultzatzen gaitu.

ANTZEZLEAK

Artedrama eta Dejabu Panpin Laborategia antzerkigintzan eskarmentua duten bi konpainia dira. Azken urteetan elkarrekin lan egin dute zenbait antzezlanen sorkuntzan eta orain egitasmo berri honi ekin diote. Bi aktorek hartzen dute parte bertan:

URKO REDONDO
AINARA GURRUTXAGA



*idazlea zeu zara,
irakurtzen duzulako*



DATU ZEHATZ ETA PRAKTIKOAK

IZENBURUA:

Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako.

LAN MOTA:

6 urtetik 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa dramatizatua.

IRAUPENA:

45-50 minutu.

NON EGITEKO:

Ikastetxeetan, Kultur Etxeetan, Antzokietan. Egitasmoaren izaera dela eta, garrantzia handia du guretzat espazioak, eta haurrentzat ezaguna den espazio batean gauzatzeak. Herriko liburutegia ere egokia izan daiteke (ez dira egokiak ordea gimnasio eta espazio handiak, oihartzuna izaten dutelako normalean).

ADINA:

Lehen Hezkuntzako LH 1, LH 2 eta LH 3ko ikasleei zuzenduta.

Adin tarte ezberdinentzat egokiagoak diren ipuinekin osatu da ikuskizun bakoitza. Kontaketa bakoitzen bi aktorek hartuko dute parte.



*idazlea zeu zara,
irakurtzen duzulako*



EMANALDIETARAKO BALDINTZAK

DATAK:

2011ko urritik eskaintzen dugu ipuin kontaketa Euskal Herriko hainbat aretoetan.

IKUSLE KOPURUA:

Haurrekin gertuko harremana oinarri dute ipuin kontaketek, haien parte hartzea eta inplikazioa ahalbidetzeko. Hori dela eta, ez da gomendagarria talde bakoitzean 25 haur baino gehiago izatea. Lehen aipatu bezala, gela ertain bat litzateke egokiena (4m x 4m gutxienez).

LAGUNTZAILEAK

HARRI XURI
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

PREZIOAK:

BEZ kanpo

- Emanaldi bat: 450 €
- 2 emanaldi: 600 € egun berean
- 3 emanaldi: 650 € egun berean

KONTRATAZIOA:

ARTEDRAMA

(+34) 615 77 95 11
info@artedrama.com

www.artedrama.eus
www.idazleazeuzara.com